

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak lau Topagune Iraunkor dauzka jada Europar Batasuneko informazioa bideratu eta eguneroko berriak hurbiltzeko

Gaur bertan aurkeztu den webguneak lau sektore estrategikoetako informazio zehaztua ematen du.

Asteartea, 2018.eko urtarrilak 9


Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari den Ana Ollok eta Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkari den Mikel Irujok gaur goizean aurkeztu dituzte Nafarroan jada egon badauden lau Topagune Iraunkorrak. Informazio-egitura hauek [Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiari](#) lotutako lau

eremuen inguruko topaguneak dira, non parte hartzen duten agenteek eskura izango duten informazio zehaztu eta egituratua, eta non marko europarreko ekimen anitzetan parte hartzeko aukera izango duten.

Gaur bertan aurkeztu den [webgunea](#), Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak gidatua, [Europako Ekintzen Planaren](#) baitan dagoen proiektu bat da, sareei, ekitaldiei, politikei, legegintza-erreformei, funtsei eta EBeko programazioari buruzko informazio-neurriak ematen dituena.

Proiektua beste zenbait jarduerak ere osatzen dute: hamabostean behin igortzen den berripaperaren bitartez ematen den operadorei buruzko informazioa, Europar Batasuneko Funtsen Gidaren hedatzea Nafarroako herri desberdinetara egindako bisiten bitartez, edo topagune bakoitzean urteroko bi ekimenen antolaketa, horietatik batek, gutxienez, nazioarteko dimentsioa daukana.

Berrikuntzarako Europako espazioak 200 ekimen eta ekintza inguru garatu ditu jada, denak ala denak jarduera eta informazio-iturri propioekin, zeinen jarraipena egitea nekeza suertatzen den. "Europar Batasunak sortzen duen informazioa bideratzea funtsezkoa da eta Topaguneak leku egokia dira informazio hori guztia artikulatzeko", kontseilariak zehaztu



duenez. "Lan hori, egun, zaila suertatzen da, informazioa erraz sakabanatzen delako nagusiki, baina baita informazioa jasotzen duten erakundeek sakabanaketatik ere". Hori dela eta "sortu ditugu espazio hauek, aipaturiko informazioa modu egituratu eta kanalizatuan artikulatzeko gai direnak, foro sektorial bakoitzean informazio horretan interesa duten erakundeak hautemanen".

Aurreikusitako Topaguneak Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategian ezarritako lehentasunezko arlo sozioekonomiko berak dira: automobilgintza eta mekatronika, elikatze-katea, energia berriztagarriak eta baliabideak eta osasuna.

2017ko balantzea

Olo kontseilariak Ordezkaritzaren jardueri buruzko balantze bat ere egin du prentsaurrekoan zehar. "2016an lehen aldiz izan zuen Nafarroak jardueren balantze zehaztua izateko aukera, eta Ordezkaritzaren eraginkortasuna monitorizatu eta egiaztatzeko aukera eman zigun horrek". 2017ko jardueren balantzearen baitan, urtarrila amaieran argitara emango dena, Eskualdeen Batzordeak Nafarroari eskatutako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiei buruzko txostena nabarmendu du besteak beste kontseilariak, eta ordezkariek berak hizlari gisa parte hartu duen 23 hitzaldiak ere azpimarratu ditu; gainera, Ekonomia Sozialaren Nafarroa Planak Europan izan duen sustapena eta Eskualdeen Batzordearen eta Europar Batzordearen baitan antolatutako batzar instituzionalen berri ere eman da.